



Usurbilgo Udala

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 13an egindako bilkuran, segidan jasotzen den ebazpena onartu du 2015/2016 ikasturtean aisialdiko begirale ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntzen inguruan.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK:

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeke errekurtsoa aurkez dezake azaroaren 26ko 30/1992 eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki hau argitaratu eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeke eskatu orde, edo berraztertzeke errekurtsoarean erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak sei hilabeteko epea izango du berariazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik kontatzen hasita administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko.

Usurbil, 2016ko irailaren 13a.- Xabier Arregi Iparragirre, alkatea.

EBAZPENA

Ikusirik

2016ko ekainaren 20an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 27an hasi eta uztailearen 8an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, guztira zazpi eskaera jaso ziren.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek 2016ko uztailearen 22an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen 2015/2016 ikasturtean aisialdiko begirale ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntzen inguruan.



Usurbilgo Udala

Ebazpen proposamena uztailaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2015/16 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak (GAO, 2016/06/20)
- Diru-laguntzei buruzko ebazpen proposamena (GAO, 2016-07-29)
- Kontuhartzaitza Sailaren ziurtagiria.

EBAZPENA

Lehenengoa: Diru-laguntza kopuru hauek behin betikoz onartzea.

IZEN-ABIZENAK	DIRU-LAGUNTZA
Iñigo Sasiain Garcia	155,00 €
Axier Dominguez Prieto	250,00 €
Ianire Furundarena Olasagasti	202,50 €
Irune Echave Larreta	202,50 €
Maidar Sanchez Learte	202,50 €
Jon Mikel Azpiazu Zubeldia	250,00 €
Itziar Irazusta Larrea	155,00 €
Guztira	1.417,50 €

Bigarrena: Diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4400.481.326.00.01.2016 (A313/2016)

Hirugarrena: Interesatu bakoitzari ordainketa bideratzea.

Laugarrena: Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Bosgarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.